

MOZIO ARRUNTA

DOAKO ONTZI-ALDAKETAK DELA-ETA

Amaia Almirallek, EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, MUGIn doako ontzi-aldaketak direla-eta.

JUSTIFIKAZIOA

2013ko maiatzaren 4ean tarifa-sistema bakarra martxan jarri zen (MUGI). Ordaindu beharreko tarifa bidaiariek egiten dituzten jauzien eta norberaren errenta gaitasunaren arabera da. Bidaiariek operadora bat baino gehiago erabiltzen badute, ordea, bidaiak garestiagoak dira. Izan ere, martxan jarri zenean, sistemak izango zuen eboluzioaren esperoan, erabaki zen operadore ezberdinen arteko ontzi-aldaketetan (adibidez Euskotren-dBus edo Lurraldebus-dBus) bi operadoreen arteko bidaia txartelik garestiena ordainduko zela % 100ean eta merkeenaren %25, edozein izan zitekeelarik hurrenkera.

Lurralderako eta Donostiarako sistema bakarraren bidean, lehen pauso bezala egoki baloratzen badugu ere, azpimarratu behar dugu bidaiariak bidaia bat eta beste baten %25 ordaintzen duen arren, deskontuak lortzeko sisteman, bidaia bakarra bezala kontabilizatzen zaiola. Alegia, MUGI sistemaren bidaia bakarrek 1,25 ordaindu behar du herritarrek.

Hori aurreikusita, 2014an Gipuzkoako Lurralde Garraio Agintaritzaren Tarifen Batzordetik txosten bat egin zen urteko datuak aztertuta, eta intermodalitatea helburu, ondorioztatu zen batez beste 300.000 euroko gastua urteko izango zuela herri-administrazioentzat herritarrek doako ontzi-aldaketak izateak.

Beraz, hipotetikoki, doako ontzi-aldaketen gastua onargarria izan daiteke eskumeneko administrazioentzat, baina garraio publikoei, MUGI sistemari eta donostiarrei sor diezaiekeen onura izugarria izan daiteke. Donostiako Tranbia Konpainiari dagokionez ere, uste dugu onurak baino ez dizkiola ekarriko, doakotasuna ezartzeko Donostiako Udalak egin behar duen ekarpenarekin alderatuta.

1. Donostiarrentzat garraio publikoa erakargarriago eta sostengarriago bilakatzen da azken prezioan egokitze bat dagoelako.
2. dBusen eta gainontzeko operadoreek (Euskotren, Lurraldebus) lehiakortasunean irabazten dute ibilgailu pribatuarekin alderatuta, erabilerak eta diru-sarrerak handitu baititzakete.
3. Intermodalitatea, mugikortasun jasangarriaren giltza, sustatzen dugu bete-betean Donostia beste garraio publikoen bitartez datozen herritarrek hiri barnean mugitzeko dBusen zerbitzuak erabiltzea sustatuz.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honakoa aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak doako ontzi aldaketen aukera aztertzea babesten du eta, era berean, eskatzen die Gipuzkoako Lurralde Garraio Agintaritzari osatzen duten gainontzeko administrazio nagusiei, Eusko Jaurlaritzari eta Foru Aldundiari, 2017rako tarifak ezartzeari begira, doako ontzi aldaketen aukera aintzat har dezatela, mugikortasun jasangarria eta intermodalitatea sustatzeko pizgarri sendo bezala.

2.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak eskatzen dio Gipuzkoako Lurralde Garraio Agintaritzari, Donostiako Tranbia Konpainiarekin elkarlanean eguneratu dezala ontzi-aldaketen txostena, azter dezagun eskumeneko herri-administrazioek doakotasunaren bideragarritasun ekonomiko eta soziala.

Donostian, 2016ko urriaren 6a

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea